

**EUSKARA ETA EUSKAL FORU ZUZENBIDEA
NOTARITZAREN ALORREAN: URTE BATEKO JARDUKETA**

Zuzenbide munduan, oso urriak izaten dira estatistikak egiteko ahaleginak. Urriagoak, zalantzarik ez, zuzenbide mundua eta euskara lotzen dituen kontuak badira horrelakoak.

Hala ere, autu hori kezkgarri gerta daitekeela ohartuta, halako saiotxo bat burutu izan dugu 1996. urtean Juan Ramon Manzano eta hemen sinatzen duenak. Biok notario eta euskarazko gorabeheretan jakingura ezagunekoak izanik, gure eguneroko langintzan euskarak zernolako presentzia duen ahalik eta zehatzen neurtzeari ekin diogu.

Jakin bagenekien, aldez aurretik, emaitza harrigarriak lortuko ez genituela. Edozelan ere, saiatu beharra zegoen. Beste abiaburu bat ere bagenuen begibistan horretan ekiteko. Izan ere, Foru zuzenbidea Euskal Herriko hainbat lurraldetan errealitate bizia dugu. Lurralde horien artean, Bizkaia dugu gailenetarikoa eta horren ikerketa ere, eskura izateko modukoa iruditu zitzaigun, batez ere zuzenbide horren bizitasuna jakinaratzeko.

Zenbakiak lotu, zenbaketak egin eta hona hemen emaitzak.

1. Euskarazko dokumentuak

1.1 Kopurua

Aspalditik neurtu zituen Patxi Zabaletak gai honen inguru-koak, *Euskera* aldizkarian agerturiko testu batean ("Euskara testamendu eta azken-nahietako idatzietan." *Euskera* XXXVII, 1, 1992, 603-610). Gure egungo datuek ordukoak baieztatu eta berresten dituzte, hau da, notaritza lanetan, kopuruz behinik behin, euskararen presentzia txikia dela.

Zehatzago esanda, bi notariook 1996. urtean eskuetsitako eskritura kopuru osoari begira (3.331), euskaraz sinaturiko eskritura kopurua txikia da, 50 baitira, guztira, dokumentu horiek. Proporzio edo hainbanaketa, ondorenez, bistakoa da: batez beste, urteko agiritegi osoaren *ebuneko bat koma erdi* (% 1,5).

Baten batek berehala jarriko digu eskura hurrengo datua: jakina, Bilbon egindako estatistikak dituzue horiek, Bilbo bera erdaldun hutsa dela. Erantzunak ere tenore berekoa izan behar, Bilboren euskalduntasuna neurtzeko ez baitaio soilik begiratu behar erdaldunen kopuruari, ezpada Bilbon bertan gertatzen den euskaldunen biltzeari. Gaur egun, Bilbo da, ezbairik gabe eta Bizkaiari dagokionez, herririk euskaldunena, hau da, euskaldun gehien batzen duena, modu sakabanatu batean batzen badu ere.

Bestelako ñabardurak ere egin daitezke horren inguruan, Bilbon batzen baitira euskaldun bizkaitar, gipuzkoar eta nafartarrak, batze horrek dakarren aberastasunarekin. Sarri gertatzen da notaritzan dokumentu sinatzaileak bizkaitar ezezik, gipuzkoar eta nafartarrak izatea.

1.2. Edukia

Bigarren ardatz bat ere badugu zeregin horretan, kopuruarena bezainbestekoa dena eta dokumentu horien edukiari dago-

kiona. Eduki horrek adierazten digu langintzaren norabidea, batik bat dokumentu konplexuak eta teknika bereziak eskatzen dituztenak badira euskaraz gauzatzen direnak.

Langintzaren norabidea zuzena den ala ez horretan nabari dezakegu. Erraz antzematen denez, gure gogoia esparri zabalena hartzea izan da beti. Filosofia horretatik abiatuta, ez dute pisu berekorik maiz errepikatu eta modu ia automatiko batez egin daitezkeen dokumentuak edota xehetasun handiak eskatzen dizkiguten horiek.

Beste behin ere, ezin bazter utzi nabardurak, posible baita dokumentu ezezagun eta ezohiko baten aldaerek ohiko dokumentu bera ere desitxuratzea, izaera bereko baina esaera desberdinekoa bihurtuz jatorri berbera duten dokumentuak.

Gauzak horrela, hona hemen notaritzaren arloan gauzatu ditugun dokumenturik behinenak:

DOKUMENTU MOTA	ZENBAT
Ezkontza kontratuak	1
Aktak	1
Botereak: auzietarakoak bestelakoak	8 6
Testamentuak	8
Obra berriak	1
Salerosketak	9
Hipotekak	2
Kitapenak	3
Subrogazioak	1
Merkataritza sozietateen eraketa eskriturak	7
Berrespenak	3
GUZTIRA	50

Oro har, kopuru txikiak izanda ere, nagusi salerosketak eta merkataritza sozietateen eraketa eskriturak. Auzietarako botere edo ahalak ere nabarmen, abokatu euskaldunei esker, horien eskariz bideratzen baitugu arlo hori. Azpimarratzekoak ere testamentuak, azken nahia norberak bizi duen hizkuntzarekin zeharo uztartuta.

1.3. Kopuru horien argilunak

Dagoeneko, batzuek esana dute: horretarako hainbat neke? Merezi al du euskaraz horrelako lanetan jardutea? Frantzunak kolore eta taxu desberdinekoak izan daitezke. Gure baitan, bederen, bi arrazoi izan ditugu erabakigarri euskarazko langintzari ekiteko unean: lehena, euskaldun jendearekin euskaraz jardun eta euskaraz zerbitzua emateko bi eskribauok izan dugun konbentzimendua eta bigarrena, euskarari erakutsi nahi izan diogun atxikimendua, hizkuntza bera lanabes modura erabili nahi izan dugulako. Bide horretan gabiltzala, ez dugu irtenbide itxi eta agortua ikusi, zabala eta irekia baino. Hala ere, argilunak azaleratu zaizkigu ekinean ibili bitartean. Hona-koak, besteak beste:

1) Gero eta eskakizun handiagoak darabiltzagu eskuartean. Gure bulegoan ahozko harremanak euskaraz burutzeko aukera badugu, neurri dexente batean behinik behin. Eskatzaileen eskabideek ere horretara eraman gaituzte eta ahozkotik idatzizkora jausi egiterakoan, ezari-ezarian goaz, dokumentuen bildumak osatzen eta biribiltzen.

Egia esan, bagenuen horretarako hasierako egoera positiboa, beharginen kopuru erdia euskalduna zelako eta notaritzako arlo guztietan euskaldunik bazegoelako. Horri gehitu izan diogu, langintza honen bitartez, idazteko aukera, dokumentuak egiteko modua.

Oraindik orain asko falta bazaigu ere, euskaldun alfabetatu bat tartean dugu, jada euskaraz lan egiteko gai dena.

2) Langintza horren fruituz eta ondorioz, formularioak ere finkatu ditugu. Etengabe datozkigun premia eta beharrei aurre egiterakoan gure burua ahalegindu eta formula idatziak ere landu eta hobesteko parada izan dugu. Berrogeita hamarren bat finkatuak dira jada eta kopurua etengabe doa handitzen.

3) Txanponaren beste aldean baditugu, hala ere, bestelakoak. Gure dokumentuak erregistroetan aurkeztu eta inskribatu beharrean gaude sarri askotan. Horrelakoetan, euskarazko dokumentua erdarara itzuli behar erregistratua izan dadin eta inskripzioa erdaraz gauzatu behar. Horrek indarra kentzen dio euskarari berari; horren ondorioz, euskara ez da hizkuntza juridikoa bihurtzen guztion aurrean eta guztiontzako. Erregistroak eman dezakeen legebideztaketa ukatu egiten zaio euskarari. Badago hor zer jorra euskararen eta bestelakoen legeetan.

4) Aurrekoarekin lotuta, jarraikoa ere esan behar. Aspalditik arautu zuen Kataluniak eta Konstituzio Auzitegiak onartu, katalanaren erabilera notaritzako dokumentuetan. Sinatzaileak katalan mintzaile direnean edo horrelakoren bat katalan mintzoduna ez denean, zer egin eta abarrekoak, indarrean daude bertan. Gurean, hala ere, huts-hutsean.

5) Bosgarrenez ere, badago bestelako kezkarik. Euskara bera hizkuntza juridiko gisa erabiltzeko, termino eta joskera berezia erabili behar. Horretan ere, badihardugu notarioen hizkera bihurria euskaratzen.

Honen esparrukoa ere bada bestelako arrenkura hau: euskaraz lan egiteko gauza diren beharginak aurkitzea. Horretan igartzen da halako hutsunerik... On litzateke administratibo, idazkari eta abarrekoek ere heziketa mota eta maila hauek eskaintzea.

2. Foru zuzenbidea

Bigarren arlo horretan, Bizkaiko Foru zuzenbidea dugu hasleku eta helmuga. Egun, ezaguna denez, Bizkaian bi bizkaitar mota ditugu zuzenbide pribatuaren ikusmoldetik: bizkaitar forudunak eta ez forudunak. Lehendabizikoek forua dute aplikagarri euren gorabeheretan: tronkalitatea, testamentu, oinordetza eta senar-emazteen arteko ondasun kontuak; besteek, oster, tronkalitatea dute burubide Espainiako kode zibilararen aplikazioarekin batera. Elizateak (bizkaitar forudunen egonlekuak) eta hiriak (bizkaitar ez forudunenak) dira hor bereizgarrienak.

Ildo heretik ere, bitasun hori zenbatzeko ahalegina egin dugu 1996. urtean. Zenbatze hori egiterakoan bi aldaera erabili ditugu eskuartean: lehena, testamentu egileen bizkaitartasuna, forudun izan ala ez; hurrena, testamentu mota desberdinak zedarriztatzea, Bizkaian ohiko dugun *alkar-poderoso* horren nondik norakoak azaltzeko, beste testamentu mota batzuekin erkaruta, hala nola testamentu *mankomunatua* edota *hil buruko* testamentuarekin.

Neurketa honetarako, beste behin ere, Manzano jaunaren eta nire protokoloaren datuak hartu ditugu aintzakotzat. Horri erantsi izan zaio Garces jaun notarioaren datutegia ere, hiruen kopuruak zernolako emaitza ematen digun erakuts ahal izateko.

Gogoratu beharra dago, nolana ere, testugintza horretan jardun baino aurreragoko daturik. Lehen dugu esana Bilbo hiri erdalduntzat har dezaketela batzuek euskararen alorrean. Foru zuzenbide alorrean ere, Bilbo hiri dugu, hots, Foru zuzenbidea aplikatzen ez den lurralde horietakoa. Honck zailtzen du Foru zuzenbidearen bizitasuna. Hala ere, Bilbon bertan elizateetako bizkaitartasun foruduna dutenak badira eta inguruko elizateek ere bizkaitar forudunen kopuru estimagarria ekartzen dute hiriburu honetara.

Ikus ditzagun, besterik gabe, testamentuen kopuruak:

Bizkaitar forudunak	136
Bizkaitar ez forudunak	374
GUZTIRA	510

Testamentu motak azaltzeko orduan zera esan behar: Foru zuzenbidepeko testamentu gehienak senar-emazteen arteko *alkar-poderosoak* dira, kasu banatan testamentu *mankomunatu* eta *hil burukoa* agertu arren. Oso gutxitan ematen da bizkaitar ez forudunen arteko *komisario* izendazioa edo *alkar-poderoso*a. Bizkaiko Foru zuzenbideak gaur egun eskaintzen duen aukera berria, beraz, hedadura urrikoa gertatu da, oraingoz behintzat.

Batez beste, Foru zuzenbidearen esanrua *ebuneko bogei-bogettabostean* dabilkigu (% 20-25). Ez ahaztu, lehen esan legez, datu horiek, ziur asko, elizate baten kasuan gora egingo luketela, bertako notaritza lanak harreman zuzenagoak izan ditzakeelako Foru zuzenbidearekin.

Luze joan zaigu gogoia, luzeago menturaz idazluma. Hitz bitan esanda: aurrera goaz, astiro baina abiada hartzeko tenorean. Etorikizun hobea baterako itxaropen zantzuak begitaratzen zaizkigu. Ez gehiagorik baina, aldi berean ere, ez gutxiagorik.

Andres Urrutia